ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko martxoaren 21a, asteazkena • 34 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**190/2018 Foru Agindua, martxoaren 14koa. Honen bidez, Hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2016ko enplegu eskaintza publikoan sistema irekiaren txanda orokorraren bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, eginkizun berezien klasea, Antolaketa, A1 taldea**

Azaroaren 18ko 337/2016 Foru Arauaren bitartez onartu ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

10.4 oinarri orokorrak aurreikusten du epaimahaiak hautatuen behin-behineko zerrenda egingo duela, dagokien lantoki zehatza adierazten duena, eta zerrenda hori, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren Foru Agindu bidez, ALHAOn argitaratuko dela, erreklamazioak aurkezteko hamar egun baliodunneko epea ezarriz.

Deialdiko epaimahaiak egindako proposamena ikusita.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorriz.

XEDATU DUT

Lehenengoa. Hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2016ko enplegu eskaintza publikoan sistema irekiaren txanda orokorraren bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, eginkizun berezien klasea, Antolaketa, A1 taldea:

| IZENA | LANPOSTUA | KODEA |
|---|---|---|
| Alexander Rodríguez López | Funtzio Publikoko Teknikaria | 1216.003 |
| Estibaliz Larruzea Marijuan | Kalitatearen Kudeaketa Teknikaria | 1211.001 |
| Gorka Goienetxe Arandia | Funtzio Publikoko Teknikaria | 1216.002 |
| Agurtzane García Izurrategui | Koordinazioko Goi Mailako Teknikaria | 1294.001 |

Bigarrena. Erreklamazioak aurkezteko 10 laneguneko epea egongo da, Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 14a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*
*CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR*



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.21 06:29:50 Z